

Erromeri paregabea Azkorten

Eguraldia ederra lagun, herritar ugari bildu ziren Azkorteko ermitara



Bertso bazkari eta maratokia Belfast-en

Belfast Irlandako hiriburuan urtero egiten den Bertso Dinner-ean izan dira dozena bat lasarteoriatar. Amets Arzallus eta Andoni Egañak apirilaren 30ean eskainitako saio bikainaz gozatzeko aukera izan zuten eta gainera Tomas Arruti eta Iñaki laben herritarrek Belfasteko maratokia bukatu zuten maiatzaren 2an, astelehenean. /2 ORRIALDEA

Urteroko hitzorduari kale egin gabe, aurtentzen ere Ttakun Kultur Elkarteak antolatu du erromeria Azkorten.

Egitaraua goizeko 11:00etan hasi zen, ermitan ospatzen den mezarekin. Bertan, Alboka abesbatzako kideek abestu eta Jon Lasak zuzentzen duen Amalur eskolako gazteek trikitia jo zuten.

Horren ondoren, festa ermitako kanpoaldean jarraitu zuen. Amalur eskolako gazteek jarraitu zuten giroa berotzen euren trikitixa, pandero eta bateriarekin, eguzkiarekin batera; izan ere egun ederra izan zen atzokoa. Giro eguzkitsu eta beroa goiz-goizetik.

Herri kirolak hasi baino lehen Patxi Etxeberria eta Zigor Iriondo bertsolariek saiotxo bat egin zuten, bertarutakoei agurra eginenez.

Herri kirolen txandan



Urtero legez, herritar ugari bildu ziren atzo Azkorten antolatutako erromerian. Giro oso polita egon zen.

berri, Urtzi eta Beñat Telleria herritarrek aritu zen harria jasotzen. Aizkoran berri, Aratz Mugertza nutrikuarra

eta Xabi Dorronsoro zeraindarra aritu ziren.

Kirolari bakoitza bakarka hainbat lan egin eta gero,

proba mistoa egin zuten zaharrenak gazteen kontra, eta aurtengoan gazteek, Beñat eta Aratzek irabazi zuten proba.

Herri arabiarren iraultza ulertzeko

Ostegun iluntzean Ibon Artola, Euskal Herria sozialista taldeko kideak herri arabiarren iraultza ulertzeko hitzaldi interesgarria eman zuen Jalgi tabernan.

Herri arabiarren inguruko analisi globala egin zuen hasieran eta ondoren Egipto, Tunes eta Libian zentratu zen. Iraultzen hastapenak eta egungo egoera azaldu zituen. Hedabideek amaitutzat eman zuten iraultza, baina hor jarraitzen duela argitu zuen.

Mundu arabiarra hobeto ezagutzeko informazio zabala jaso zuten bildutakoek. •



Mundu arabiarrean emandako iraultzak aurrera ateratzeko oztopoia antolaketa faltan dagoela azaldu zuen Ibon Artolak.

UDALA /3

Kreditu likidazioan aurrekontuetan oreka dagoela dio Udalak

HAUTESKUNDEAK /4-5

Gizartea, hezkuntza, kultura eta euskara inguruan solasten dute politikoeak

BERTSO-SAIOA /6

Udaberriko bertso saio bikaina



BATU GAITEZEN

LASARTE-ORIAK AURRERA EGITEKO

Estitxu Alkorta



www.estitxualkorta.com

Bertso dinner eta maratoia Belfasten

■ 12 herritar egon dira aurreko asteburuan Irlandako hiriburuan ■ Andoni Egaña eta Amets Arzallus izan ziren bertso bazkarian ■ Tomas Arruti eta Iñaki Iaben-ek maratoia bukatu zuten

Urtero egiten den Bertso Dinner-ean izan dira Belfast, Irlandako hiriburuan, dozena bat herritar. Aurten, Amets Arzallus eta Andoni Egaña apirilaren 30ean eskainitako saio bikainaz gozatzeko aukera izan zuten. Tomas Arruti eta Iñaki Iaben, aldiz, maiatzaren 2an, astelehenean, egin zen Belfasteko maratoian parte hartzeko joan ziren, baina ez zuten, noski, bertso bazkaria galdu.

JON ALTUNA

Irlandako hiriburuan egun batzuek pasatu eta garagardo pinta batzuek hartuta pozik itzuli ziren bertatik lasarteoriatarrek asteartean. Tomas Arruti eta Iñaki Iaben-en bezperan, maiatzaren 2an bukatu zuten hiriburuko maratoia. Proba "gogorra, baina aldi berean oso polita" Arrutik kontatu digunez.

"Aldapa gogorrak dauzka, Belfasten goiko aldera igotzen da". Gero goitik hiriaren ikuspegi ikusgarriaz gozatzeko aukera izan zuten. Belfast osoa ikusten zen, jaitxi, ibai bazterretik eta itsaso ondokik ere beste zati bat egin eta erdigunean amaitu zuten.

Erritmo ezberdinean

3 ordu eta 32 minutu behar izan zituen Arrutik proba amaitzeko, 3 ordu eta 55 labenek. Batez ere maratoiaren antolakuntza nabarmendu dute. "Maratoi jendetsua izan zen, oso osorik 3.500 pertsonak egin zuten eta taldea beste askok, erreleboka, lauzpabost pertsonak bakoitzak zortzi kilometro inguru, beraz guztira hogeita bat mila pertsonak parte hartu zuten, batzuek oinez. Giro herrikoa zen proban".

Ostiralean joan eta asteartean eguraldi bikaina izan dute lau egunetan. Larunbatean Bertso Dinner-ean egon ziren eta astelehenean egin zuten maratoia. "Alderantziz izan bazen hobe, aurrena maratoia eta ondoren bertso bazkaria,

baina..." kontatu digu Tomas Arrutik. Oso giro ona izan zen Amets Arzallus eta Andoni Egañarekin bertso bazkarian. 110 lagunetik 12 lasarteoriatarrek ziren.

Egitarau zabala

"Gustura egon ginen bazkarian eta aurretik antolatu zuten egitarauko beste ekitaldietan" kontatu digu Arrutik. Goizean goiz, Belfasteko gune esanguratsuenak bisitatu zituzten eta hiriburuaren historiari buruzko azalpen "interesgarriak" jaso. Ondoren kalejira-poteoa trikiti eta pandero-jolearekin, bertso bazkaria eta, besteak beste, Kellys eta Maddens pub eza-gunetara bisita. "Gu garaiz erretiratu ginen, baina hortz luzeekin. Neurria hartu genion eta ongi".

Belfasten eta bertso bazkarian izan ziren Leire Elizegi eta Saioa Elorza, bertan bizi den honen ahizpa Olaia bisitatzeko. Baita herriko beste lagun koardila bat: Maialen Goikoetxea, Iñigo Etxaniz, Jon Ander Goikoetxea, Ioritz Iparragirre, Iker Ortega, Ane Labaka eta Irati Perez. Guztiak elkartu ziren noski Bertso Dinner ospetsuan.

Ane Labakak kontatu digunez, oso saio ona egin zuten Andoni Egaña eta Amets Arzallus-ek. Bertso Dinner-a zuten helburu baina Dublin eta Belfast hiriburuak ezagutzeko aukera izan dute. Dublinera joan ziren hegazkinez eta han hiru egun egon ziren. Gero Belfasten beste lau. Bueltatze-ko goia ekarri dute.



Bertso Dinner-era joan eta tabernaz taberna ibili ziren Belfasten. Irudian, 12 herritarrek Maddens pub-eko atarian.



Larunbatean Egaña eta Arzallusek kantatu zuten Belfasten. Astelehenean maratoia egin zuten Tomas Arruti eta Iñaki labenek.



Laugarren maratoia

Maratoia eta bidaia kulturalak lotu ohi ditu Tomas Arrutik. Lau maratoi egin ditu Katalunian, Saharan bi eta Irlandan, azkarrena lehenengoa Bartzelonan hiru ordu eta erdian, beste bi Saharako desertuko baldintza gogorretan eta maiatzaren 2an Belfastetara.

Beste maratoi batzuek ere

egino lituzke, baina arazoa denbora da, "lauzabost hila-bete entrenatzeko" behar ditu. Izan ere, gero emaitza oso ona da, "hiri batera joan eta korrika ezagutzea".

Belfasten adibidez, auzo katoliko eta protestantetan ibili ziren, Irlandako banderak eta Britainiakoak ikusi zituzten, "gainera hauteskundeak izan

dira, beraz dena elkartu da, euskal giroa, bertso bazkaria, maratoia eta kanpaina".

Hainbat leku ikusi eta eza-gutu zituzten korrika, alde bateko eta besteko auzoak, hauen arteko hesiak eta bertan margo-tutako muralak,..."orain bakean badaude ere ikusten zen bi komunitateen artean gatazka oso gogorra egon dela". •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Oreka dago likidazioetan

Adarra kaleko 100 etxebizitzaren zozketaren deialdiko baldintzak eta prozedurak onetsi ziren udal batzarrean

Iazko ekitaldiko likidazioaren dosieraren eta, 2011 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri eman zuen alkatetzak, lehengo asteko astelehenean egin zen Udalbatzarrean.

Kontuhartzaileak egindako likidazioaren dosieraren arabera, kreditu likidazioaren aurrekontuan oreka dago, gastu korrontearen kopuruak izan duen hazkundeagatik.

Honetaz gain, diru sarrearen ere emaitza onak egon direla azpimarratu dute, "%85,89a lortu da".

Hala ere, alkateak azaldu zuenez, "sarrearak ez ohizkoak izan dira, eraikuntzaren ondorioz lortutakoak baitira". Zorri dagokionez, maila baxua du herriak. Udalbatzarri 3 milioiko kreditua eskatzeko eskaera egin arren, kopuru hori ez da beharrezkoa izan.

Era berean, datuen arabera 2012-2014 urteetako plan ekonomikoa egiteko aitzakiarik egon ez arren, alkateak jakin arazi du, aruzetuko duela.

Hau guztiaz gain, gastu korrontea murrizten jarraitu behar dela ere azpimarratu zuen eta horretarako beste erakundeek haien erantzukizuna daren zerbitzuak onartzea dakarrela aipatu zuen, Eusko Jaurlaritzak jangelarekin egin duen bezala.

Hirigintza

Era berean, Udalbatzarrean



Adarra kalean, Loidi-Barren eremuan, babes ofizialeko 100 etxebizitza zozketatuko dira.

Adarra kalean, Loidi Barren eremuan zozketatuko diren 100 etxebizitza babestuak lurrazaleko eskubidearen erregimenean adjudikatuko zozketaren deialdiko baldintzak eta prozedura onetsi zen.

Honen bidez, etxebizitzaren banaketa era proportzionalan egingo da, kupo bakoitzean Goiegi Ibarreko promoziorako zeuden eskareren arabera.

Hala ere, legez %5 minusbaliatuei eman behar zaienez, lau etxebizitza izango dira kupo horretarako.

Etxebizitza bakarra izango da familia ugariarentzat

Beste guztiak, 96 bat etxebizitza honela banatuko dira: 63 etxe 35 urte azpiko 1 edo bi kideko kupoari; 2 dira 35 urte azpiko 3 edo kide gehi-

goko kupoarentzat; 23 etxebizitza izango dira 35 urte baino gehiago eta 1 edo bi kideko kupoari dagozkionak eta azkenik, 35 urte baino gehiagoko 3 edo kide gehiago kupoarentzat 7 etxebizitza izango dira.

Gipuzkoako buletinean argitaratu eta hortik hamabost egunetara itxiko da erregistroan promozio honetan parte hartzeko izena ematea.

Bestalde, Goiegi Ibarra promozio 1. Kupoan soberran dauden etxebizitzak beste kupo bati esleitzeko baimena eman zuen udalbatzarrek. Hiru etxebizitza izan dira esleitu gabe geratu direnak eta 3.1 kupoko zerrendetako jendeari, hau da, 35 urte azpiko 1 edo bi kideko herriarrei eskainiko zaizkie. •

Gidabaimena euskaraz atera daiteke

Gazteek gidabaimena euskaraz atera dezaten sustatzeko, 2010ean gauzatutako egitasmoari jarraipena emanez, Buruntzaldeko udalek egitasmo hau jarri dute abian 2011rako.

Kanpainaren berri Mikel Izagirre Urnietako alkateak, Iñaki Mugica Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakariak, Malores Etxeberria Hernaniko Euskara teknikariak eta Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako teknikariak eman zuten asteazkenean.

"Buruntzaldeko herritarrei jakinarazi nahi diegu gidabaimena euskaraz ateratzeko daukaten aukera, batez ere, aurten 18 urte betetzen dituzten gazteei. Horretarako, gutuna eta diptikoa iritsarazi



Udal ordezkariak eta euskara teknikariak autoeskoletako arduradunekin.

zaie Buruntzaldeko 18 urteko gazte horiei," aipatu zuten.

Era berean, iazko kanpainaren antzera, auto-eskola bakoitzeko gidabaimenaren alderdi teoriko baten zozketa

egingo da azterketa gainditzen dutenen artean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak autoeskoletan euskaraz ikasteko aurten egingo duen kanpainaren ere azpimarratu zuten. •



SAHAR HERRIAREN LAGUNAK

Saharar haur bat hartzeko familia behar da

Saharar Herriaren lagunak taldeak Udalaren laguntza antolatzen duen *Oporrak bakean* egitasmoaren berri eman zuten asteazkenean aurten saharar haur bat hartuko duten familiei.

Programaren nondik norakoez gain, saharar haurren egoera ulertzeko bideo bat ikusi zuten eta harrera familien kezka argitu zituzten elkarteak.

Era berean, elkarteak gogorarazi zuen harrera familia bat behar dutela haur berrietako bat hartzeko. Programari buruzko informazio gehiago izateko Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Lagunak elkartearekin (660 775 090/678 563 977) jarri edo Villa Mirentxun dagoen Gizarte Zerbitzuetara hurbildu daitezke interesatuek. •

MENDIZ MENDI, MENDEZ MENDE

Gipuzkoako kultura eta natura aztertzen

Ostadar mendi elkarteak bideratuta, Kutxak eta Foru Aldundiak sustatutako *Mendiz Mendi, Mendez Mendez* kanpainako autobusa Lasarte-Oriara iritsiko da maiatzaren 11n.

Hiru egunez, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Gipuzkoako natura eta kultura-ondareak uztartzen dituzten loturak ezagutzeko aukera izango da gure herrian.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, pertsona guztiak geruratu daitezke autobusera, egokitua baita. Honetan, ikus-entzunezko eta multimedia-baliabideetaz baliatuz, 50 minutu inguruko aurkezpen-saioan parte hartu dezakete herritarrek. •

MENDIA

Arantzatik Lasarte-Oriara irteera

Ostadar mendi elkarteak San Juan Xar eremutik, Arantzatik Lasarte-Oriako mendi ibilbidea antolatu du maiatzaren 21ean.

Aurreko urteetan, Arantzatu, Aralarreko San Migel edo Arrate eta gure herri artean dauden kilometroak egin ditu talde honek. Aurten 12 orduko txangoa izango da egingo dutena.

Ostean, aipatu digutenez, indarrak berreskuratzeko Zubietako elkartearen afaria izango dute.

Irteeran izena emateko interesatuek Lagunak elektrizitate dendara hurbildu behar dute. Inskribatzeko azken eguna, maiatzaren 13 ostirala, izango da. •

LASARTE-ORIAKO BIZILAGUNEN ELKARTEA

Marrazki eta margo ikasleen erakusketa

Lasarte-Oria Auzo Elkarteak XXV. Marrazki eta Pintura erakusketa zabalik du Manuel Lekuona kultur etxean maiatzaren 13ra bitartean. Oskar Tena, aurten izan duten irakaslearekin egindako lanak erakutsiko dituzte astelehenean ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. •

HITZARMENA

Herriko komertzioaren alde

Lasarte-Oriako Udala eta Aterpea Merkatarien elkarteak herriko merkataritza dinamizatzea helburu duen 2011. urteko hitzarmena sinatu dute.

Gauzak honela, komertzioa dinamizatu eta herriaren bizikaltatea eta erakargarritasuna sustatuko duten negozio aukerak sortzeko, hainbat proiektu eta ekintza eramango dituzte aurrera bi erakundeek, esaterako Stock eta Saldoen azoka. •



Aterpeko ordezkariak, alkatea eta Zubiri merkataritzako batzordeburua sinaketan.

Zortzi dira Lasarte-Orian maiatzaren 22an egingo diren udal hauteskundeen alkate izateko aurkeztu diren hautagaiek. Aurreko astean, alkategatik hirigintzaren inguruan zuten iri-



JESUS ZABALÓS



PABLO BARRIO



ESTITXU AUKORTA



ANA ISABEL PRIETO

Hzaintean zentratuz, langabetuen kontratazioa balaratuko dugu kontratazioa-ori eta kontratazio guzietan. PERCOren aldeko apustua emiten dugu udalerriko merkataria diruzatze. Asoziazioetara lagunduko dugu (Aterpe) lokal bakoitza lagunduko eta lehenasuna emango diegu esanbidez mendi herriak irekitzeko lizenziaren tramitei eragiteko soreren bizkortze.

Herriaren zentratze baina herriarekin kontaktu gabe. Bost hitzetan, herria alda daitake jendarean begira Udalka jarraitu duen politikak. Gauzak egiten dira baina herriko taldeekin kontaktu eta uzatu gabe. Ondorioz, bakoitzak bere aldea elkarrekin osatzen du, elkarrekin lan egiteko sor zitezkeen inbuitak gaitzen direnak.

Lasarte-Oriak bere nortasuna berreskuratu behar du, bere historia eta herri kultura. Bere oinarriak eta tradizioak biziberritu behar ditu, lasarte-oriar guzietan ondatze izan daitezen, eta herri baten benetako partaidetza sentituz gero.

Otain arte arreta gehiago eskani zae edukirik (erakundeak, maitasunak, dinamismoa...). Auzoak Lasarte-Orian talde eta elkarteak erabiltzen dituzte, baina hori dela uste dugu, bere erabilera eta zabalduen da. Baina hori dela uste dugu, bere erabilera eta zabalduen da. Baina hori dela uste dugu, bere erabilera eta zabalduen da.

Kultura eta Hezkuntza dirak Antonio Mercero Espazio Museoan martxoan jarriko dugu. Kultur Ater erakusketak espazio berri bat sortuko dugu Arribakortean. Eta kudeaketa kulturalak webgune berri bat sortuko dugu. Herriaren artean elkarrekin eta komunikatzeko. "Udal Idazte Berriak" alab sortuko dugu Udal Liburutegian, eta "Gau zuri" ospakizun dugu udan, kontzertuekin, hitzaldiekin, film emanaldiak, erakusketak... Udalka berri bat sortuko dugu.

Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu. Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu. Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu. Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu.

Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu. Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu. Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu. Herriaren artean, VIII Maratona ospatuko dugu.



Eker Batua RICARIDO ORTEGA



NATXO IZETA



aralar MAYI BENGOTXEA

Hekuntza publikoa bultzatu behar dugu. Gure herriko hezkuntza eskaintza publiko behar adinako eta egokia dela ziurtatu behar da, bai araratuko hezkuntza dirak, horrela bultzatu behar dugu. Herriko hezkuntza dirak, horrela bultzatu behar dugu. Herriko hezkuntza dirak, horrela bultzatu behar dugu.

Betidnik esan ohi dugu udalak gizarate zibiletza gehiago zabaldu behar duela, herriaren partehartze susperu eta herri dinamiko eta partehartzaileagoa lortzeko, herriaren horietan elkarlanean jardutea. Gaur egun dugu an elkarlanean partehartze indar.

Aralarren garbi daukagu administrazioa berritzea eskubideen bidez. Herriaren parte-hartze modu ereduari buruz, herriaren parte-hartze modu ereduari buruz, herriaren parte-hartze modu ereduari buruz, herriaren parte-hartze modu ereduari buruz.

Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu.

Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu.

Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu. Herriko bizitza soziala berritu behar dugu.

Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke. Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke. Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke.

Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke. Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke. Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke.

Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke. Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke. Herriaren inguruan, guzietan eragindako duten mugaria izan daiteke.

Manna advertisement for clothing store. Includes logo and contact information: MERZERIA, KORTSERIA ETA MODA INTIMOAN ADITUAK. Ados - Kalea 6, behe - Tel: 943 370588 - Lasarte-Oria

Lasarte Oria aurkezpen ekitaldia 13 malatzak. 19etan sagardotegi kalean bildu botoa eman botoa. Includes logo and contact information: bilduLasarte Oria, bildu www.bildu.info

Riojanos Erredegia Afariak, bazkariak, pintxoak... Ustifin kalea 13 - Tel: 943 362720 - LASARTE-ORIA

Datorren ostiralean, ekonomia-aren inguruko iritzia jorratuko dute hautagaiek Hurrengo astelehenean, azkena, euren programaren ildo nagusiei buruz

EREDUNDOAN ITZULIA

EREDUNDOAN ITZULIA



Jaialdi amaieran oholatzatik jetsi eta publikoarengana jo zuten eurei eskainiz azken bertsoak.

Bertso jaialdi ederra

Udaberriko bertso saio ederra ikusi zen larunbatean Manuel Lekuona kultur etxean. Andoni Egaña, Arkaitz Estiballes, Unai Muñoa eta Ane Labakak euren bertsoak eskaini zizkieten hurbildutako herritar guztiei. 300 lagun inguru bildu ziren antzokian eta bertan Lasarte-Oriaren historia eta mende hasierako garaiak errepasatzeko eta ezagutzeko aukera izan zen.

Bertsolariez gain herriko musikari, dantzari eta abeslari askok hartu zuten parte 2 ordu eta erdiko ikuskizun ederrean.

Aitor Lasak soinuarekin eta Arantazu Mugikak biolinarekin, Musika eskolako irakasle eta ikasleek, Tik-Tak Klak klaket taldeak, Ane Minguez-ek eta Ana Ramiro-k Charlestona dantzatzen, Kukuka antzerki taldeak, Petra Esler-ek, Xumela abesbatza, Erketzeko dantzari eta musikariek, gehi lau bertsoari saio bikaina eskaini zuten.

Herria izan baino lehen

Lasarte-Oria udalerrri izan baino lehen herri izaera bazuen, herri sentimendua eta hori bere historian eragin du. XX. mendeko errepasoa

egin zuten, eta horri lotuta Egañak, Muñoak, Estiballesek eta Labakak bertso ederrak eskaini zituzten. Gure herriaren historia ezagutzeko, Edu Galardik bildutako argazki zaharrak ere ikusi ziren.

Aurtengo bertso jaialdiak bazuen berrikuntza nabarmen bat gainera, musika zuzenean. Bertsolariei lagunduz musika estilo ezberdinak entzun ziren aretoan, eta doinu horiei jarraituz aritu ziren bertsoan.

Ttakunek eta Bertso Eskolak berriro ere bertsoak beste kultur diziplinekin nahastuz, jaialdi polita eskaini zuten. •



Jaialdiaren aurkezpena eta gero, Muñoa eta Estiballesen desafioa izan zen.



Charleston dantzatu zuten Ane Minguez-ek eta Ana Ramiro-k.



Erketz taldeko dantzariak *Godale* dantza eskaini zuten.



Lily Marlen abestia euskaraz eta alemanez kantatu zuen Petra Esler-ek.



Barre algara handiak sortarazi zituzten Kukula Antzerki taldeko kide hauek eskaini zuten *kabaret* dantzarekin.



Xumela abesbatzak Euskara oi euskara abestia eskaini zuten.

Egunero

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO AUZO ELKARTEAK antolatzen duen margo eta marrazki kurtsoko ikasleen erakusketa. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Erakusketa


PALESTINA ETA GOLANeko GIZA ESKUBIDEAK argazki erakusketa Mundu Bat GKE-ren eskutik. Jalgi kafe-antokian.



Astelehena, 9

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Baloietan hezi jardunaldietan, LA PREGUNTA ÉTICA Y PRINCIPIOS FUNDAMENTALES PARA SUPERAR LA CRISIS DE LA ÉTICA hitzaldia eskainiko du Jose Maria Setien Donostiako



Che Guevararen filma ostegunean

CHE, UN HOMBRE NUEVO filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Gaur egun, oraindik ere Che Guevararen irudia, lanak eta pentsamoldeak indar handia du. Tristan Baurrek, film honen bitartez, 39 urterekin hil zuten Ernesto Guevara, El Che-ren intimitatea, formazioa, koherentzia, mundu berri bat eraikitzeko gogoia, errealitateari buruzko zuen begirada poetikoa azaldu nahi du.

OSTEGUNEAN, HILAREN 12AN
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA, 4. 30 EURO
GAZTELANIAZ

gotzain emerituak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Asteartea, 10

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Baloietan hezi jardunaldietan, ÉTICA Y ECONOMÍA EN EL CONTEXTO DE LA GLOBALIZACIÓN hitzaldia eskainiko du Arturo Garcia ekonomista eta irakasleak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Asteazkena, 11

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Baloietan hezi jardunaldietan, ÉTICA E INGENIERÍA GENÉTICA hitzaldia eskainiko du Pablo Eraso Biologia eta Kosmologia irakasleak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Osteguna, 12

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Baloietan hezi jardunaldietan, ÉTICA PARA UNA COMUNICACIÓN MÁS HUMANA hitzaldia eskainiko du Juan Pagola informaziozientzietan lizentziatua eta irakasleak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Igandea, 15

Zinea

RIO animaziozko filma, hau-

rrentzako zinea sailean. Sarre-
ra, 3,30 euro. Kulturetxean,
17:00etan. GAZTELANIAZ.



Asteazkena, 18


Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "SEMEAK/ALABAK EZ DIT OBEDITZEN" Pilar Seminariorenkin. Kulturetxean, 18:00etan.

Ostirala, 20

Hitzaldia

EGURALDIARI BURUZ arituko da Joxe Ramon Apaolaza. Txanetena baserrian 20:00etan.



Bakarrizketa

KIKE BIGURIREN bakarrizketak Xpressionk eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen duten Xpressionk Zirkuituan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue
ostiralero 9:45etik 11:00etara



Oharrak

Udalekuetan begirale izateko

Ttakunek Udalaren laguntza antolatzen dituen Udako Txokoak egitasmoan edo Mendigorrian eta Kanpaldietan begirale izateko aukera dute nahi duten gazteek. Udalekuak uztailean eta abuztuan izango dira. Interesa dutenek maiatzaren 10a baino lehen eman behar dute izena: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. Informazio gehiago 943 371 448 telefono zenbakian eskuratu dezakete.

Ostalarien bilera

Lasarte-Oriako ostalaritza elkarteak sortzeko asmoz, maiatzaren 10ean, gaueko 21:30ean Buenetxea tabernan

herriko ostalariei biltzeko deia luzatzen nahi zaie.

Zabaleta auzoko jaiak

Zabaleta auzoko lagunak ekainaren lehenengo astean egingo diren auzoko jaiak antolatzen hasi dira. Bilerak ostegunetan Antonio Blas plazako garajearen egingo dira.

Arantzatik Lasarte-Oriako oinez

Ostadar Mendi elkarrekin San Juan Xar eremutik, Arantzatik alegia, Lasarte-Oriarainoko mendi ibilbidea antolatu du maiatzaren 21erako. Ondoren, indarrak berreskuratuzko Zubietako elkarrekin afaria izango dute.

Izena emateko jo Lagunak elektrizitate dendara. Inskribatzeko azken eguna, maiatzaren 13 ostirala, izango da.

Lourdesera bidaia maiatzaren 12an

Biyak Bat erretiratuen elkarrekin maiatzaren 12rako Lourdesera bidaia antolatu du. Irteera, goizeko 7:30ean izango da egoitza bertatik. Lourdesera 10:30etarako iritsiko dira eta 11:30eko meza entzungo dute. Ostean, 14:00ak aldera, L'Ardiden jatetxean bazkalduko dute. Bidaiaren prezioa (autobusa eta bazkaria barne), 34 eurokoa da.

Galdutako gauzak Udaltzaingoa

Udaltzaingoa bulegoan gauza hauek daude jasota: urrezko aliantza bat Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera bat, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren eskumuturreko bat,

bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatuak (bata zorroarekin), bi telefono mugikorak (bata poltsarekin), haur zamarra bat, larrazko beste zamarra bat eta belarrikatuko batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herriarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzaingoa Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Beñat Esnaola, Julen Sasiain eta Joseba Pascual Gaueko Itzalak rock taldea

“Gaueko Itzalak”en lehen diskoa kalean

■ Ostiralean egin zuten aurkezpen kontzertua herrian ■ Hamar abesti berri grabatu dituzte

“Lurra hiltzen” lehen diskoa ekoiztu eta argitaratu du Gaueko Itzalak taldeak eta ostiral gauean erakutsi zuten herritarren aurrean Flor de Caña “zuloan”. Taldearen azken urtetako lanaren emaitza, abendu eta urtarrilean grabatu zuten Zarauzko Fidelenea estudioan Mikel Anestiarekin eta ahal bezain beste zabaltzeko sei eurotan jarri dute salgai. Orain udako kontzertuetan ezagutarazteko asmoz dute, lehenengoa Zabaletako jaietan.

JON ALTUNA

Lau lagunek 2007ko abenduan sortu zuten Gaueko Itzalak: Iñigo Garmendia (ahotsa-gitarra), Joseba Pascual (gitarra-koroak), Julen Sasiain (baxua) eta Beñat Esnaola (bateria) eta hiru urte ondoren grabatu dute lehen diskoa. Metal musika egiten dute, “heavy metala, ahotsa sendo, altu eta garbia delako”. Dena den, Julen baxujoleak azaldu digunez badaude parte “Trash-ago, Power-ago edo Poperagoak”.

20-21 urte dituzte, 2007 amaieratik asko ikasi dute eta esperientzia horri esker disko helduagoa dakarte. “Hasierako kantetatik eboluzioa ageri da” esan digu Beñat Esnaolak.

Sortu eta hiru urtera ateratu dute lehen diskoa, bere iritziz, “gazteak gara eta konturatu gara diskoa ondo ateratzeko harreman eta lan asko dagoela

atzean”. Beraiek egin dute dena, grabazio estudioekin harremanetan jarri, grabaketa, diseinua eta kopiak lotu, ... “kantak sortzea ere kosta zaigu” esan digu Beñatek.

Hamar abesti berri

Hamar abesti dakartza diskoak: “denak berriak. Alde pixka bat egon daiteke batzuetatik beste tarra, lehen bi kantak entzun eta pentsa dezakezu ez direla talde berdinarenak, batzuk 2008an sortutakoak dira, eta beste lau abesti azken sei hilabetetan sortutakoak. Ez dut esango eraginak aldatu direlako, musikaz gehiago ikasi dugulako baizik” azaldu digu bateria joleak. Aurretik 2008an herriko maketa lehiaketa irabazi zuten grabaketa zeukaten.

Orain, Zarautzen grabatu dute Fidelenea Estudioetan Anestiarekin Mikel Kazalis-ekin. “Oso ondo portatu da, iritzia



Herritarren aurrean aurkeztu zuten diskoa eta abestiak ostiral gauean.

eman digu, lagundu, ez digu presiorik sartu, hori ere garrantzitsua da guretzat. Grabaketan “paroi” bat ere egin genuen azterketak iritsi zirelako. Gero, Masterra Bonbereneakoei pasa eta kopiak egiteko hauen laguntza izan dugu, eurek biderratu dute”. Abesti batean Suta-gar taldeko Aitor Gorosabel-ek gitarra jo eta kantatu du.

Flor de Caña tabernan aurkeztu zuten diskoa ostiralean eta lagun asko joan zen ikustera. Bakoitzari sarrerarekin disko

bana oparitu zieten. “Kantuez jendeak duen iritzia jakin nahi dugu” diote.

Sei eurotan salduko dituzte diskoak. Prezioa jartzerakoan zera pentsatu zuten, “gu diskoa zenbat ordaintzeko prest egongo ginateke, ba prezio horretan jarri dugu. Badakigu merkea dela, benefiziorik ez da atertzen gaur egun diskoekin, baina gure helburua zabaltzea da, jendeak eduki dezala”.

Taldekiek eskerrak eman nahi izan dizkiete diskoa graba-

tzeko laguntza eman dutenei, “batez ere, Joxe Mari Agirretxeri grabaketa estudioa bilatzen eta beste hainbat arlotan emandako laguntzarengatik” eta Egoitz Zelaiari “beti laguntzeko prest dagoelako”. Bera dute batzuetan zuzeneko teknikari. Edu Galardi eta Isa Agirrek Zubieta-kontzertua grabatzen emandako laguntza ere eskertu dute.

Esne Beltzarekin jo zuten bertan, grabatu eta bideoklipa egin dute Interneten zintzilikatze: “You Tuben jarriko ditugu lau-bost abesti”.

Irailen Beñat Alemaniara doa ikasketak amaitzera, eta otsaila bitartean agian izango dute bertan jotzeko aukeraren bat. “Ez litzake gaizki egongo”.

Bien bitartean, uda honetarako asmoa ahal den toki gehienetan jotzea da, jendeak diskoa ezagutu dezan. Zubieta-kontzertua izan da eurentzat handiena baina gogoangarriena, Julen baxujolearen ustez lehenengoa izan zen Zabaletakoa eta hurrengoa sanpedrotakoa. Beñatentzat, Iparraldean, Hazpamen eskainitakoa.

Taldearekin harremanetan jartzeko: 675702280 (Sasi) eta gauekoitzalak@gmail.com. Datu gehiago: www.myspace.com/gauekoitzalak •



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



Ate irekiak,

maiatzaren 14an eta 21ean,

larunbatez, 11etan

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

Energia eta ura



Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com